

30. ORDENANTZA

Ordenantza fiskala, Telefonía mugikorrekó zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek herriko jabari publikoko erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duena

Oinarria eta izaera.

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 100.4 artikuluari jarraikiz ezarri da ordenantza hau, martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legeak emandako idazketaren arabera.

ZERGAPEKO EGINTZA.

2. artikulua.

2.1.-Tasaren zergapeko egintza dira herriko jabari publikoan, udal eremu publikoko zoru, zorupe eta hegalkinean, telefonía mugikorrekó hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziaren tasa, interes orokorrekoak izan edo herritar guztiei edo frankori eragiten dietenean.

2.2.-Jabari publikoaren aprobetxamendu berezia gertatuko da baldin eta, hornidura zerbitzuak egitearen ondorioz, Udalaren eremu publikoko zorua, zorupea eta hegalkina okupatzen duten antena, instalazio edo sareak erabili behar badira, azpiegitura horien titularra nor den kontuan hartu gabe.

SUBJEKTU PASIBOAK.

3. artikulua.

3.1.-Subjektu pasiboak dira telefonía mugikorrekó zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresa edo entitateak, bai erabiltzeko, eskuratzeko edo elkar lotzeko eskubideak gauzatzeko bidea ematen duten sareen titularrak, bai zerbitzu horiek banatu edo merkaturatzen dituzten enpresak, nornahi dela ere haien titularra.

4. artikulua.

4.1.-Udalaren jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik telefonia mugikorreko zerbitzuek ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa zehaztu eta kalkulatzeko, telefonia finkoaren udalerrri honetako sarea erabili behar dutenean, formula hauek erabiliko dira:

a) Zerga-oinarria

Honela kalkulatzen da zerga-oinarria, telefonia mugikorreko zerbitzuak jabari publikoan egiten duen aprobetxamendu bereziaren zenbatespenetik:

$$ZO = Ktb * Tk + (BK * Ksb)$$

Izanik:

Ktb = banaz bertzeko kontsumo telefoniko zenbatetsia, telefonia finkoko lineetan, sakelako telefonoetatik egiten diren deiak direla-eta. 58,9 euro da urtean 2010eko ekitaldirako.

Tk = udalerrian instalaturik dauden telefono finkoen kopurua (2008an, telefono finkoen ezarpena 100 biztanletik 45,1 zen, 22193 izanik biztanleriaren zenbateko ofiziala 2008/01/01ean) (2009ko 36. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, martxoaren 25ekoa)

BK = Udalerrian erroldaturiko biztanleen kopuruaren %95. $0,95 * 22193$ izanik biztanleriaren zenbateko ofiziala 2008/01/01ean)

Ksb = banaz bertzeko kontsumo telefonikoa eta zerbitzuena, sakelakotik sakelakorako deietan. Zenbatekoa 279,1 euro da urtean 2010eko ekitaldirako.

ZOaren kalkulua

$$(58.9 * 45.1 / 100 * 22193) + (0.95 * 22.193 * 279.1) = 6473895,61$$

b) Oinarrizko kuota

Oinarrizko kuota osoa zehazteko, %1,4 aplikatuko zaio zerga-oinarriari.

$$OK = ZOaren \%1,4$$

Hona oinarrizko kuotaren (OK) balioa 2010erako:

$$\text{Oinarrizko kuota } 6473895,61 * 0,014 = 90634,53$$

$$\text{Tributu kuota / operatzailea} = KO * OK$$

Izanik:

KO = operadore bakoitzari egozten ahal zaion koefizientea, merkatuan duen partaidetza kuotaren arabera, barne direla aurretiaz nahiz ondoren ordaintzeko erak.

c) Operadoreen araberako egozpena.

Hona KOaren balioa eta operadore bakoitzak ordaindu beharreko kuota 2010erako:

KO kuota.

Operatzailea eta KO	Operatzailearen koefizientea	Operatzailearen kuota	Hiruhilekoko kuota
Movistar %48,87	0,4887	44.293,10	11.073,27
Vodafone %33,10	0,331	30.000,03	7.500,01
Orange %16,58	0,1658	15.027,21	3.756,80
Yoigo %0,71	0,0071	643,51	160,88
Bertze batzuk %0,76	0,0076	688,82	172,21

Hiruhileko bakoitzean zerrendako operatzaileek ordaindu beharreko kuotak dira artikulu honetako b) atalean ezarritako oinarritzko kuotari KO koefizientea aplikatzearen ondoriozko zenbatekoaren laurdena.

KO koefizientea zehazteko, subjektu pasiboek Udalaren aitzinean frogatzen ahal dute desberdina izan dela partaidetzaren egiazko koefizientea aitzineko ekitaldian. Hala izanez gero, hiruhilekoetako autolikidazioak egokituko dira, tributudunak egiaztaturiko koefizientea aplikaturik.

ZERGALDIA ETA TASAREN SORRARAZPENA.

5. artikulua.

5.1.-Zergaldia urte naturala da, salbu eta hornidura edo zerbitzua emateko beharrezkoa den tokiko jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendua berezia hasi edo burutzen denean, halakoetan hiruhilekoko hainbanaketa izanen baita bidezko, betiere arau hauei jarraikiz:

a) Alta ematen denean jarduera hasteagatik, ekitaldia bukatzeko falta diren hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, alta ematen deneko hiruhilekoa barne.

b) Baja ematen denean jarduera uzteagatik, ekitaldiaren hasieratik iragan diren hiruhilekoei dagokien kuota likidatuko da, uztea gertatzen denekoa barne.

5.2.-Ordenantza honetan arautzen den tasa ordaindu beharra honako hauetan sortzen da:

a) Aprobetxamendu berrien kontzesio edo baimenetan, behar den lizentzia eskatzen den puntuan.

b) Ordenantza honen 1. artikulua aipatzen duen aprobetxamendu berezian aritzeko lizentziarik edo baimenik behar ez denean, delako aprobetxamendua hasten den puntutik. Horri dagokionez, aprobetxamendu berezia hasi dela ulertuko da zerbitzu egiten hasten zaienean halako eskaera egin duten erabiltzaileei.

5.3.-Eremu publikoetako zoru, zorupe eta hegalkineko aprobetxamendu bereziak zenbait ekitalditan luzatzen badira, tasaren sorrarazpena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldia urte naturala izanen da.

DEKLARAZIO ETA DIRU-SARRERAREN ARAUBIDEA.

6. artikulua. Telefonía mugikorreko zerbitzuetan aritzen diren enpresa operatzaileek apirilean, uztailean, urrian eta abenduan aurkeztu beharko dute autolikidazioa eta ordenantza honen 4. artikuluan ezarritakoa aplikatu ondoko urteko kuotaren laurdena ordaindu.

KUDEAKETA.

7. artikulua. Kudeaketari, likidazioari, diru-bilketari, ikuskailtzari, arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, ordenantza honetan aurreikusi ez den orotan jarraituko zaio Kudeaketaren, diru-bilketaren eta ikuskatzailetzaren ordenantza orokorrean, Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduan eta aplikatzekoa den gainerako arauetan ezarritakoari.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK.

8. artikulua.

8.1.-Tasaren autolikidazio zuzenetik heldu den tributu zorra ordenantza honetan ezarritako epeen barnean ez ordaintzea tributu arloko arau-haustea izanen da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 94.2 artikuluan tipifikatua.

8.2.-Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean eta Kudeaketaren, diru-bilketaren eta ikuskatzailetzaren ordenantza orokorrean aurreikusiarri jarraikiz tipifikatu eta zehatuko dira tasa hau kudeatu, ikuskatu eta biltzeko prozeduretan egiten ahal diren tributu arloko gainerako arau-haustek.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria.-4. artikuluko parametroen eguneratzea.

Etorkizuneko ekitaldietako ordenantza fiskaletan aldatzen ahalko da Ktb, Ksb, BK eta Tk parametroen balioa, horrela erabakitzen bada.

Ordenantza honetan aldaketarik egiten ez den bitartean, aplikatzekoak izanen dira 2010eko ekitaldirako ezarritako parametroak.

Ordenantza hau aplikatu behar bada 2010etik aitzina, urte horretaz egiten diren aipua ordenantza aplikatzen den ekitaldi bakoitzerako egintzat hartuko dira.

Bigarren xedapen gehigarria.-Ordenantzako aginduak eta indarra duen araudiaren aipamenak aldatzea, arau berriak aldarrikatzen direnean.

Ordenantza fiskal honetako agindu batzuek, arrazoi sistematikoak direla medio, indarra duen legeriaren alderdiak edo horiek garatzeko arauak errepikatzen dituzte, eta gero etorriko diren bertze agindu batzuek ordenantza honen aginduen aipua eginen dute eta haietara joko. Beraz, lege edo erregelamendu horiek aldatzen diren puntuan, bertzerik gabe aldatutzat eta/edo ordezkatzat joko dira horiek guztiak.

Hirugarren xedapen gehigarria.-Sorrarazpen eguna indarra hartzean.

Ordenantza honek indarra hartuko du bere behin betiko onespena argitaratzen den egunean, eta hura izanen da 2010eko ekitaldiko sorrarazpen eguna. Hurrengo aldietarako, ordenantza honen 5.3 artikuluan xedatzen denari jarraituko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Udalbatzak 2009ko azaroaren 30ean egin osoko bilkuran onetsi zuen behin-behineko ordenantza fiskal hau, eta behin betikoz onetsirik gelditu da 2010eko otsailaren 25ean, eta indarrean egonen da harik eta espresuki indargabetzen den arte.